

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1130

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 11koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena, nazioartekotze-planean bildutako jardura eta ekintzak gauzatzeko laguntzak emateko deialdia jendaurrean aurkezten duena, 2009ko ekitaldirako gogoeta estrategikoari eta kanpoko sustapen-planen laguntzeko Nazioartekotze Estrategien Programa (Interbide) garatzen duen 2005eko abenduaren 30eko Aginduak ezarritako esparruan.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko abenduaren 30eko Aginduak (2005eko abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.) Irtenbide Programa garatzen du, gogoeta estrategikoari eta kanpoko sustapen-planen laguntzeko.

Agindu horren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, nazioartekotze-planean bildutako kanpoko sustapen-ekintzak gauzatzeko artikulua horretan ezarritako laguntzen 2009ko ekitaldirako deialdia egin behar da, baita horretarako beharrezko arauak eman ere.

Aurrekoa aintzat hartuta, eta aipatutako aginduaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Ebazpen honen bitartez, gogoeta estrategikoari eta kanpoko sustapen-planen laguntzeko Nazioartekotze Estrategiak Interbide Programa garatzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko abenduaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2009ko ekitaldirako deialdia egiten da, Nazioartekotze Planean bilduta dauden eta aurten egingo diren kanposustapeneko jardura eta ekintzen gauzatzeko-faserako.

Xede horretara 280.000 euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 29ko 19/2008 Legean ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera. Halaber, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (Egef) ere parte hartzen du Interbide Programa finantzatzeko.

Zenbateko hori Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntza-programa hori eta beste zenbait programa gauzatzetik geratuko diren aurrekontu-soberaki-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1130

RESOLUCIÓN de 11 de febrero 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para la ejecución de las actividades y acciones contenidas en el Plan de Internacionalización, dentro del marco establecido por la Orden de 30 de diciembre de 2005, que desarrolla el Programa Estrategias para la Internacionalización, de apoyo a la reflexión estratégica y a los planes de promoción en el exterior (Interbide), para el ejercicio 2009.

La Orden de 30 de diciembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, desarrolla el Programa Interbide, de apoyo a la reflexión estratégica y a los planes de promoción en el exterior (BOPV n.º 248, de 30 de diciembre de 2005).

De conformidad a lo establecido en el artículo 10 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen para la fase de ejecución de las acciones de promoción exterior incluidas en el plan de internacionalización, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el citado artículo 10 de la Orden de referencia

RESUELVO:

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto de la presente resolución, la convocatoria, para el ejercicio 2009, de las ayudas previstas en la Orden de 30 de diciembre de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se desarrolla el Programa Interbide, Estrategias para la Internacionalización, de apoyo a la reflexión estratégica y a los planes de promoción en el exterior, para la fase de ejecución de las actividades y acciones, de promoción exterior, contenidas en el Plan de Internacionalización que se realicen en el presente año.

Para este fin se destinará un total de 280.000 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en la Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009. Asimismo, el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (Feder) contribuye a la financiación del presente Programa Interbide.

El importe mencionado podrá modificarse en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de este y otros programas

nen arabera ere aldatu ahal izango da. Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordeak ebazpena emango du aurreko guztiaren berri emateko.

2. artikulua.– Betekizunak.

1.– 2005eko abenduaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko, aipatutako aginduaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek.

2.– Orobat, eskaerak eta gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria eta Itsasketa ganberetan, edo Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde-bulegoetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean zehaztutako tokietan, eta betiere Nazioartekotze Zuzendaritzari zuzenduta.

3.– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 2009ko ekainaren 30ean amaituko da, horretarako kreditua agortu ez bada. Eskaeraren eredu bat www.euskadi.net/industria helbidean lortu ahalko da.

4.– Interbide Programa arautzen duen aginduaren 13.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera, 2009ko ekainaren 30a izango da aldaketak onartzeko azken eguna, baldin eta eskaerak egun hori baino lehen egin badira eta eskaera horiei buruzko ebazpenik eman ez bada.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 11.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

Artículo 2.– Requisitos.

1.– Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 30 de diciembre de 2005, deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

2.– Asimismo, deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación de la Comunidad Autónoma del País Vasco o en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que irán dirigidas a la Dirección de Internacionalización.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará, en tanto no se haya agotado el crédito consignado al efecto, el día 30 de junio de 2009. Un modelo de solicitud podrá obtenerse en www.euskadi.net/industria.

4.– Atendiendo a lo especificado en el artículo 13.5, de la Orden reguladora del programa Interbide, la fecha final de admisión de modificaciones será 30 de junio de 2009, siempre que las solicitudes hubieran sido presentadas con antelación a dicha fecha y no se hubiera dictado resolución sobre las mismas.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.